

❖ LUDO DOCX

“IRAGANA GOGOAN, ORAINA ETA GEROA ERAIKITZEKO”

Flandriako Bake Museoaren arduradunen ordezkari naiz. Flandriarra naiz, baina 17 urte Iparraldeko Euskal Herrian bizitzen eta bakearen aldeko lan egiten ere bai.

Joan den hilabetean Euskal Herriko adiskideen gidari izan nintzen Flandriako Diksmuide-n. Han dago gure Bake Museoa, 84 metroko dorre handi baten barruko 22 solairuetan. Bake mezu dorre hontan lau haizeetara zizelkatua dago: “no more war – nie mehr Krieg – plus jamais guerre – nooit meer oorlog”.

BERRIA egunkarian irakurri nuen, joan den astean Gernikara iritis zela Bakearen Bidea martxa, bonbardaketaren 68. urteurrenean. Anaituta daude Gernika eta Alemaniako Pforzheim; hiri martiriak dira biak. Airez bonbatu zituzten. Bi data. 1945eko otsailaren 23a : Erresuma Batuko hegazkinak Pforzheim hiria bonbatu eta txikitu zuten, nazien kontrako borrokan. Zorakeria horren ondorioa :17.000 pertsonatik gora bizia galdu zuten bonben eta suteen infernua. Zortzi urte lehenago, 1937ko apirilaren 26an Gernikan jaso zen: milatik gora lagun hil zituzten. Gernika eta Pforzheim anaikidetu egin ziren, baina ez biktima edo errudun gisa, berdintasunerako eta elkarren arteko errespeturako prest baino. Anaitasun hori herri bietako herritarren arteko begikotasunean oinarrituta dago. Beti iragana ahaztu gabe, baina etorkizunera begira, historiaren karga gainditzeko eta bakean oinarritutako etorkizuna eraikitzeke Bakearen Bidea adibiderik argiena da. Bidaideek 64 egun, 2.000 kilometro baino egin ditzute oinez, Done Jaque bidea jarraitu dute; beraiek ordean, Bakearen Bidea izena eman diote ibilbideari. Bidean ereindako mezua, bake mezua da. Oinez oinazea gogoratzen. Urratsez urrats errauntsak gogoratzen. Hala goratu zuten erromesek bakegintzaren eta elkarbizitzaren aldeko lana. Guk ere, kongresu hontan, orainari eta geroari begira, bakegintzaren aldeko eginbeharraren garrantzia azpimarratu behar dugu.

Gaur ere bakea lor daiteke

Bakea lor daitekeela esatean, bea iristeko gogo soila baino zerbait gehiago da esan nahi dudana. Nahi dugun zerbait lor daitekeela esateak, itxaropen alderdia sartzea esan nahi du. Bakoitzaren eta guztion ahalegina bideratuko duen, eta gure nahi hori lortzera eramango gaituen itxaropena sartzea.

Iluntasunean sarturik bizi bagara ere, badugu arraizoirik bakea lor daitekeela esateko. Bakea egiten ahalegintzen bagara, lortuko dugu bakea. Baina gure bakearen aldeko lana justizian eta zuzentasunean azalduko da.

Oroimena da egiaren nahia

Bakea egiaren Ondorioa da. Egia gabe ez dago bake iraunkorra eraikitzerik. Gezurra esaten duenak berak, hori egia denaren itxurak ematen saiatzen da. Gizartearen sentiberatasuna egiaren alde dago oraindik ere. Bereziki sentibera azaltzen da gaur egungo gure gizartea, ondorio publiko eta politikoak izan ditzaketen gertaeren egia ezagutzeko.

Itxaropena sorteen du, baita ere, egiaren nahia hori kontzientzia kritiko bihurtzen denean; eta komunikabide publikoetako kanalak erabiltzen dituztenek, beren interesen zerbitzuan, kanal horietan “saltzen” dituzten iritzi-korronteei aurpegia emateko gai denean. Gure museoek bere profila eraberritu dute eta eskaintzen dituzten aukerak ugartu dituzte. Guneak hazi egin dira museo erakargarri eta dinamikoak bihurtzeraino. Egun toki horiek ez dute egia borobilak inposatzeko asmorik, galderak egitera eta bakeaz hitz egitera bultzatzeko asmoa baizik.

Egiaren nahia itxaropen-sortzaile bada bakegintzan, gizarteak ezagutu behar du egia. Horrek esan nahi du, askatasunez bilatu eta esan ahal izan behar dela egia. Gu bici garen gizarte honetan ohituegiak gaude, bakoitzak berari komeni zaion egia aukeratu eta esatera. Egiaren Alberdi bati bakarrik begiratu eta hori aukeratzea egia desitxuratzea da. Gizarteak nekez jakin dezake zer nahi duen, gertaerak egiaz ezagutzen ez baditu. Urte askotan Francoren gobernuak eta prentsak eurenak eta bi egin zituzten benetan gertatutakoa estaltzeko, “gorri supiztaileei” leporatzeko eta faxismoa erru guztitik garbi uzteko. Egia zerbitzu egitea bakearen alde jotzea da.

Adiskidetzeta bakegintzarako bide

Ezinezkoa da adiskidetzeta, baldin eta barkamena eskatu eta emateko asmo sendorik ez badugu. Mendi erdi bat iraganda, Herzog presidenteak bizirik gelditu zirenei eskutiz bana bidali zien Alemaniak Gernikaren suntsipenean izan zuen inplikazioa onartzen zuela adierazteko. Ekintza sinboliko hark abian jarri zuen prozesu eredugarri bat, Bakerako Bidea zabalduko zuena: Gernikarrak euren erasotzailearekin adiskidetzeta.

Joan den asteko ekintza ere bai oso sinboliko zen: Pforzheim hiriko udal ordezkariak barkamena eskatu zuen “alemaniar guztien” izenean Gernikan orain dela 68 urte gertatu zenagatik. Eskerrak ere eman zizkien Gernikako herritarrei eta Bakearen Bidea martxako parte-hartzaileei.

Bakea edota bakerik eza gizarteko gorabehera da. Gu gara hori sorteen dugunak geure jokaerekin eta guk egiten edota egin gabe uzten ditugun onorioz. Bakegintzan hitzez eta ekintzaz adierazitako adiskidetzeta borondateaz laguntzen dugu. Guztiok daukagu zerikusirik eta

zereginik alor honetan. Bainan gure museoek beren eragin sozialagatik erantzukizun berezia daukate. Gizarte komunikabideek ere bai eginkizun handia daukate burutzeko, bakearen zerbitzuan.

Iritis behar den helmuga da adiskidetasuna. Ahazten dakien barkamendua izan daiteke, denon artean egin behar dugun etorkizun horri begira, gizarteko indarrak bateratzeko abiapuntu. Herriek eskuartean hartu behar duten lana, da historiagintza. Baita gure herriak ere. Gizarte adiskideturantz aurrera egin nahia ez da amets hutsa. Guztiontzat esana dago Desusen agintzaria: “Zorionekoak bakegileak”.

Bakerako hezi

Bakerako eta adiskidetzeko heziketa ematen saiatu izan dira eta saiatzen ari dira bake museoak. Hala ere, bide luzca dugu oraindik bake osora iristeko; horregatik, etsi orde, bizkortu egin behar dugu geure heziketa-lana. Bakerako heziketan, lehendaizi, suhardura politikoa humanizatzen jakin behar dugu, pentsaera kritikoa izateko gaitasuna eskuratuz. Gai honetan heziketa egokia eman nahi bada, gure elkartearen iraganaz eta gaur egun gertatzen ari denaz informazio zuzen etan zehatza eskaintzea eskatzen du horrek. Aldi berean, gaurko egoera gatazkatsu honen egiazko gakoa ikusten lagunduko liguke, eta analisi mitiko, simplista eta interesatuak saltasen.

Bakerako heziketak, lagun hurkoa ezberdin izatea onartzeko jarrera eskatzen du nahitaez. Elkarrizketarik ezak konpondu gabe uzten dite arazoak, edota irtenbidea indarkeriaren nahiz agintekeriaren bidez bilatzera garamatzake. Benetako bake historikoa da guk nahi duguna. Ez da, beraz, bake utopikoa.

Bake museoek bakez kutsatzen dituzte denak

Guztiz beharrezkoa dugun, eta denok erakutsi ohi dugun bakearen gogoak bakegintzara eragin behar digu guztioi. Gogo honek bizirik eutsi behar dio gure itxaropenari. Bakegintzari buruz eta bakea lortzeko bideei buruzko gogoeta funtsezko eta irekiak, norberaren autokritika zintzoarekin batera, jarrera absolutuak erlatibizatzen eraman beharko gintuzke.

Bake soziala ez dute politikoez bakarrik, eta agintearen baliabidean beren esku dauzkatenek bakarrik egiten, ezta egingo ere. Bizikidetzaren soziala, onerako edo txarrerako, denon artean ari gara egiten, “bakeraren kultura” edota “indarkeriaren kultura” deritzatenaren espirituaren eraginez. Guztiok dugu zerikusirik asko kultura horien moldaketan. Horregatik kongresu honetako lema: “Bake Museoak: Oroimen, adiskidetzaren arte eta bakearentzako ekarpen bat”.

“Bakegileak” dira bakea egiten dutenak, hau da, beren baitan bakean egonik eta egiazko bakegintzarako bideak ibiliz, bakegintzan lan egiteko gai direnak. Nere Donapaleuko etxean ipini nuen gela guztietan Joxean Artzeren bertso ospetsu : « Bere baitan bakean denak, bakez kutsatzen ditu denak ».